



# Euskararen uestezko kidetasunak Italian eta Korsikan

Juan Martin Elexpuru

Saio eta Testigantza, 241

978-84-9172-242-7

2021. urtea - 224 or. - 17x24 cm

21,00 €

*Euskararen aztarnak Sardinian?* argitaratu zuen liburu honen egileak 2017an, eta haren jarraipena eta osagarria da neurri batean esku arteko hau. Esan beharra dago Italiako iparraldeak Sardiniak baino lehenago piztu zuela zenbait ikerle euskaldunen arreta. Federiko Krutwig euskaltzainak Aosta eta Piemonte aldeko toponimian aurkitu zituen izenkideak nabarmendu zituen *Garaldea* liburuan (1978), eta geroxeago hari berari tiratu zion Bernardo Estornés Lasak Auñamendi Entziklopedian.

Baina harrezkero ez euskaldunek ez atzerritarrek, inork ez dio gaiari orain arte heldu. Obra honetan Elexpuruk, Sardiniako ikerketak eskaini dion esperientziaz baliatuta, Korsikan, Frantziako eta Suitzako Alpeetan eta Italiako penintsula osoan jarri ditu begiak. Harrigarriak dira toponimian aurkitu daitezkeen kidetasunak, hirurehun bat leku-izen berdin eta mila eta laurehun antzeko, Italia ipar-mendebaldean ematen delarik dentsitaterik handiena, Piemonte, Aosta, Lombardia eta Ligurian, antzinatean liguriarrenak izandako lurraldeetan. Baina kidetasunak ez dira toponimiara mugatzen. Mitologian, adibidez, gure Basajauna eta laminak aurkituko ditugu Alpeetan. Eta hau guztia argazkiz eta mapaz ondo hornituta.



**Juan Martin Elexpuru**  
(Ubera-Bergara, 1950)

Filosofia eta letretan lizentziatua eta Euskal Filologian doktorea. Idazlea eta itzultzailea. Nagusi zein haur literaturako hainbat liburu idatzi du. Itzuli ere bai zenbait, Moliereren *Tartufo eta Zekena* (2008) eta Makiaveloren *Printzea* (2008), esaterako. Euskal hizkuntzaren arloan *Bergara aldeko euskera* (1988) eta *Bergara aldeko berbak eta langintza zaharrak* (1997-2003) proiektuko lau liburukiak kudeatzeaz gain, *Bergara aldeko hiztegia* (2004), *Iruña-Veleiako euskarazko grafitoak* (2009), *Euskararen aztarnak Sardinian?* (2017) eta *¿Qué está pasando con Iruña-Veleia?* (2018) argitaratu ditu.

